

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko uztailaren 1etik 5erako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: BEHIN BETIKO PMI KONPOSATUA



Datuaren analisisia


Azkenean, **Euroguneko PMI konposatua** 52,2 puntukoa izan zen ekainean, hasierako irakurketan eman zituen 52,1 puntuak baino hamarren bat gehiago, zerbitzuen sektoreko portaera hobeari esker. Hain zuzen ere, zerbitzuen sektoreko indizea, azkenean, 53,6 puntura heldu zen aurtengo seigarren hilean, hasieran kalkulaturako 53,4 puntuen orde, eta 2018ko urritik izan duen unerik onenean dago. Manufakturen indizeak, aldiz, okerrera egin zuen bosgarren hilez jarraian. 47,6 puntutan kokatu zen, maiatzeko 47,7 puntuen ondoren, hiru hiletan izandako mailarik apalena.

Adierazlearen azalpena

Euroguneko zerbitzuen eta manufakturen sektoretako 5.000 enpresari baino gehiagori hileroko bidaltzen zaien galdetegi baten erantzunetatik lortzen da PMI Konposatua. Bi sektore horien aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ISM MANUFAKTURA-INDIZEA



Datuaren analisisia

Ekaineko **manufakturen ISM indizea** maitzeko 52,1etik 51,7 punturaino jaitsi zen. Analistek 51 punturaino jaitea espero zuten. Espero zena baino emaitza hobea izan arren, erreferentziaren osaerak joera mistoa izan zuen. Alde negatiboan, eskari berriak, ordaindutako prezioak eta esportazioak egon dira; alde positiboan, berriz, enpleguaren hobekuntza, ekoizpenaren hazkunde garrantzitsua eta inbentarioen jaitsiera.

Adierazlearen azalpena

ISM Manufaktura-indizea konpainia amerikar nagusietako erosketen arduradunei hilero egiten zaien inkesta bat du oinarri. Bertan, manufaktura-sektorearen egoeren inguruan galdetzen zaie. Fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



Datuaren analisisia

Estatu Batuetan, enpleguaren sorrera sendo batek (224.000 lanpostu berri sortu ziren) analisten aurreikuspenak gainditu zituen ekainean, 170.000 lanpostu inguru espero baitzituzten. Enpleguak aurrera egin bazuen ere, langabeziak hamarren bat egin zuen gora, % 3,7raino. Hala ere, maila oso osasuntsu batean dago, erabateko enplegutik oso hurbil. Batez besteko soldatak, aldiz, orduko 6 zentabo egin zuen gora ekainean, 27,90 dolarrera iristeraino. Azkenik, lan-indarraren parte-hartze tasak, hau da, lana daukaten edo lan bila dabiltzan pertsonen ehunekoak apur bat hobera egin zuen, % 62,9raino, maiatzean baino hamarren bat gorago.

Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerok argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: MANUFAKTUREN ETA CAIXIN ZERBITZUEN



Datuaren analisia

Txinako fabriken jarduera espero baino gehiago murriztu zen ekainean. **Manufakturen PMI indizea** 49,4an kokatu zen ekainean, aurreko 50,2aren ondoren eta 50,1 espero bazen ere. Zerbitzuen sektorearen hazkundera, bestalde, azken lau hiletako minimoetaraino moteldu zen ekainean, atzerriko bezeroen eskari berriek behera egin zutelako. **Caixin zerbitzuen PMI indizea**, bestalde, 52,0raino erori zen ekainean, otsailetik izandako mailarik baxueneraino.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erorketen profesionalen eta enpresetako exekutiboen manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazle a	Aurreik.
7/8	Japonia	BoP oinarrizko merkataritza balantza	-¥758.9b
7/8	Alemania	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	% -3.2
7/8	Alemania	Balantza komertziala	17.0b
7/8	Eurogunea	Sentix inbertsiogilearen konfiantza	0.1
7/10	Txina	Urte arteko KPIa	% 2.7
7/10	Frantzia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 1.6
7/10	Erresuma Batua	Urte arteko industria-ekoizpena	% 1.2
7/10	Estatu Batuak	Fed-en ordainsariak	--
7/11	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1.6
7/11	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 1.2
7/11	Estatu Batuak	Urte arteko KPIa	% 1.6
7/11	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	221k
7/12	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
7/12	Espania	Urte arteko KPIa	% 0.4
7/12	Eurogunea	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	% -1.6
7/12	Txina	Balantza komertziala	\$45.00b

BURTSA:

Aste honetan, balantze positiboa mundu osoko burtsa-indizeetan. Bilakaera hau, hein batean, Estatu Batuen eta Txinaren artean G20aren goi-bileran hitzartutako tregua komertzialaren ondorioz etorri da. Bi herrialdeen arteko elkarriketei berrekiteak munduko burtsa nagusiak piztu zituen, baina industria aeronautikoari emandako laguntzengatik AEBek Europari mugasariak jartzeko egin zuen mehatxuak gerra komertzialaren mamua piztu zuen. Gainera, Trumpek Iran mehatxatu zuen, 2015ean adostutako uranioaren aberaste mugak gainditu ondoren. Bestetik, Italiako gobernuak defizit helburua murriztu zuen, eta, horri esker, Bruselaren diziplinazko prozeduratik libratu zen. Europan, estatuburu europarrek adostasuna lortu zuten EB barruko botere-gune nagusien banaketan. Gauzak horrela, Christine Lagarde frantziarra EBZren presidente berria izango da, 8 urtez NDFren buru izan ondoren. Maila makroan, Alemanian moteltze ekonomikoaren zantzuak ikusi ahal izan ziren: xehekako salmentek behera egin zuten bigarren hilabetez jarraian eta fabrikako eskarien datua aurreikuspenen oso azpitik kokatu zen. Estatu Batuetan, enpleguaren datuak aise gainditu zituen aurreikuspenak, eta horrek Fed-en interes-tasen jaitsiera arindu lezake. Txinan, PMLak etsipen-iturri izan ziren berriro, eta Txinako ekonomiaren gaineko kezka elikatu zuten. Asteburuan, Grezian hauteskunde orokorrak egin ziren. Demokrazia Berria zentro-eskuineko alderdiak gehiengo oso sendoa lortu zuen, eta Syriza ezkerreko alderdi erradikala oso atzean utzi zuen.

ERRENTA FINKOIA:

Bosgarren hilabetez jarraian okerrera egin zuen Euroguneko manufaktura PMLaren behin betiko datua eta datozen hiletan pizgarri berriak etor daitezkeela erakusten duen Legarderen izendapena Europako zor publikoaren errentagarritasunen beherako mugimenduaren lagungarri izan ziren. Hartara, hamar urterako Alemaniako bund-ak EBZren gordailuaren erraztasunerako zehaztutako -% 0,40 gainditu zuen lehen aldiz, nahiz eta, amaieran, -% 0,36an itxi zuen. Hamar urterako bonu espainiarraren errentagarritasuna minimo historikoetara jaitsi zen (% 0,32), eta arrisku-primak azken hamarkadako minimoei eutsi ziren (60 puntu), 68 puntutan amaitu bazuen ere. AEBetan, hamar urterako tasa % 2,03ra igo zen, Amerikako enpleguaren datu onaren ondoren. Kredituaren diferentzialak, aldiz, estutu egin ziren.

DIBISAK / LEHENGAIK:

Dolarrak balioa irabazi zuen euroaren aldean, AEB eta Txinako presidentek tregua komertziala hitzartu ondoren eta Amerikako enpleguaren datu onaren aurrean. Lehengaiei dagokienez, petrolioaren prezioan ia ez zen aldaketarik eman, LPEEK petrolioaren hornidura beste bederatziz hilabetez murriztea

erabaki zuen astean. Urrearen balioak, bestetik, % 0,72 egin zuen atzera, 1.399,25 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa % Astean	Ald. 2019
MSCI WORLD (Local)	1.690,32	1,67	17,27
IBEX 35	9.335,00	1,48	9,31
DJ EURO STOXX 50	3.527,98	1,56	17,54
DJ STOXX 50	3.222,03	1,36	16,74
FTSE	7.553,14	1,72	12,26
S&P 500	2.990,41	1,65	19,29
Dow Jones	26.922,12	1,21	15,41
NASDAQ	8.161,79	1,94	23,01
NIKKEI 225	21.746,38	2,21	8,65
MSCI GORAKORRAK (Lo)	58.417,70	0,60	9,35
MEXBOL	43.405,32	0,57	4,24
BOVESPA	104.089,50	3,09	18,44
США ИЦУАИ	2.152,90	1,09	20,77

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,75	0,00	-0,14
ESPAINIA 2 URTE	-0,46	-0,03	-0,21
AEB 2 URTE	1,86	0,10	-0,63
ALEMANIA 10 URTE	-0,36	-0,04	-0,61
ESPAINIA 10 URTE	0,32	-0,07	-1,09
AEB 10 URTE	2,03	0,03	-0,65
ALEMANIA 30 URTE	0,24	-0,02	-0,63
ESPAINIA 30 URTE	1,32	-0,06	-1,29
AEB 30 URTE	2,54	0,01	-0,47
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/24*	50,08	-2,43	-38,29
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/24	243,01	-10,94	-110,68

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Dolarra / Euroa	1,12	-1,28	-2,14
Yena / Euroa	121,81	-0,70	-3,09
Libera / Euroa	0,90	0,03	-0,31

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
------------	-------	----------------------	---------------

Petrolio (Brent)	64,45	0,03	21,21
Urrea	1.399,25	-0,72	9,11

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.